


WWW.ZUBI.EUS



HAUTAGAITZARAKO 4. DEIALDIA 2017

Euskal Antzerkiaren
Sortzaile Berriei Laguntzen



Tel.:
(+34) 633 56 76 46
ehkozubi@gmail.com

www.zubi.eus

EUSKAL ANTZERKIAREN SORTZAILE BERRIEI LAGUNTZEN

Zubi proiektua, euskal sortzaile berriei bultzada emateko sortzen den ekimena da, eta bertako kideek hautatua den proiektuari babes emateko hartzen duten konpromisoa du oinarritzat. Durangoko San Agustin Kulturgunek, Kultur Leioak, Iparraldeko Euskal Hirigune Elkargoak, Zornotza Aretoak, Kulturaz Azpeitiako Kultur Kooperatibak, Elorrioko Arriola Antzokiak, Hendaiako Mendi Zolan Kulturgunek, Zumaiako Aita Mari Antzokiak eta Artedramak sorkuntza berriak bideratzeko helburuarekin, Zubi proiektua tresnatzat harturik laguntza eskaini nahi diogu euskal antzerkiko lan bat aurrera eramateko, artista edo konpainia bati.

EKARPENA

Zubiko kideok hautatutako antzezlanaren bere sorkuntza prozesuan babestu, bultzatu eta laguntzeko konpromezua hartzen dugu. Laguntza hau globala izango da eta egokitua aukeratua den obrak dituen beharrei.

Estreinaldia kide garen eragileetako baten espazioan egiteko aukera eskaintzen dugu eta ondotik, emanaldi bana gainerako herri guztietan. Bultzatzaile bakoitzak, antzezanaren katxeaz gain, diru zerbait ezarriko du sorkuntza prozesuko gastuak laguntzeko.

Gainera, entseguak egiteko aretoak eskainiko dira, egonaldi labur bat, eta baita aholkularitza artistiko tekniko eta kudeaketakoa, beti ere, proiektuaren beraren nolakotasunen arabera.

Hastapen prozesuan dauden aretoko eta formatu txiki edo ertaineko proposamen artistiko berritzaileen bila gabiltza, testua duten kasuetan, euskaraz izango dutenak.

JARRAIBIDEAK ETA EPEAK

Proposamenak helarazteko, www.zubi.eus webgunean sartu behar da, "oinarriak" atalean; bertan ageri den formularioa deskargatu, bete eta ehkozubi@gmail.com helbidera bidali. Horretaz gain, gehienez 3 MB izango dituen informazio osagarridun artxiboa ere bidal daiteke bide bera erabiliz.

Proposamenak jasotzeko azken eguna 2017ko azaroaren 30a izango da. Hautatutako antzezanaren estreinaldia, 2018-19ko negua aurreikusten da. ZUBI ez da ohiko diru-laguntza deialdi bat eta bide horretatik, bateragarria da beste batzuekin; Haratago joan nahi duen proiektua da gurea, sorkuntzaren beharretara egokituko dena, euskal sortzaileen jarduera profesionalizatzea ahalbidetuz.

KONTAKTUA

Tel.: (+34) 633 56 76 46

ehkozubi@gmail.com

www.zubi.eus

